

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU MARKA ADIERAZTEKO GIDA

Hazten
jarraitzeko
nortasuna

Edizioa

1.a 2015ko martxoa

Internet bidez

www.ehu.eus

Elaborazioa

UPV/EHUko Komunikazio Bulegoa

Diseinu grafikoa

Move Branding

Argitaratzailea

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
(UPV/EHU)

Lege gordailua

BI-347-2015

AURKIBIDEA

00.	6—25	GURE IZAERA
	8	Funtsa, nortasuna eta markaren balioak
01.	26—47	IZANETIK IRUDIRA
	28	SORKUNTZA-KONTZEPTUA: UPV/EHU estilo grafikoaren sustraiak
	36	EHU TIPOGRAFIA KORPORATIBOA: Gure testuen ahotsa
02.	48—123	NOLAKOAK IZAN, HALAXE ADIERAZI
		Diseinu eta aplikazio grafikoko gida
	50	SARRERA: UPV/EHU SISTEMA GRAFIKOA
	56	SISTEMAREN ELEMENTU NAGUSIAK
	60	LOGOTIPOA
	74	ERAIKUNTZA-SARETA
	84	TESTUA
	100	KOLOREA
	108	ARGAZKIAK
	116	FORMATUAK
	120	AHOTS-DOINUA
03.	124—153	APLIKAZIO-EREDUAK
	126	SARRERA
	130	EUSKARRIAK

00. GURE IZAERA

Funtsa, nortasuna
eta markaren balioak



**Gure nortasunaren
oinarrizko
funtsa: aurrera
egiteko, ikasteko,
etorkizunean
pentsatzeko...
ahalmena.**

A photograph of a dense forest with tall, thin trees. Sunlight filters through the canopy, creating a dappled light effect on the forest floor. The trees are mostly dark, with bright green foliage at the top. The overall atmosphere is serene and natural.

hazlea

Gure izaera

Funtsa, nortasuna eta markaren balioak



Haztea sortzetiko joera da.
Ahalegina, bilaketa, irrika,
horixe da gure funtsa...

HAZTEA SORTZETIKO JARRERA BAT DA, GURE NORTASUNAK BEREZKOA DUENA.

Beharrezko nortasuna,
bultzada ematen diguna,
jarraitzera behartzen
gaituena, markatzen gaituena.

GURE NORTASUNA, GURE ETORKIZUNA.

EM
TAZA
ZA

AN
ABAL
ZU

Gure izaera
Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

HAZI, ETA JASOKO DITUZU FRUITUAK. EMAN ETA ZABAL ZAZU.

**Goiburu hori dugu
gidari, eta adierazten
du gure publiko
guztientzako agintza.**

Nortasunak bultzatzen gaitu hazten jarraitzera, bikaintasuna bilatzera, beti hobetzera, ametsa posible dela sinetsi eta hura errealitate bihurtzera, gure errealitate eta errealitate global bihurtzera, iragana errespetatuz baina berritzeko eta aldatzeko jarrera eta konpromisoa gure gain harturik.

HAZTEN LAGUNTZEN DIGUTEN BALIOAK

Balioak dira nahia eta borondatea, inteligentziak argiturik... horiek gabe, ez dago hazterik.

Gure balioek aukera ematen digute hazteko, bidea markatuko digun nortasun propioari eutsiz. Ideia, adierazpide, estilo eta norabide jakin batzuei eutsiz.

Gure izaera

Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

Gure izaera, gure jarduteko moduan islatua. Gure historia eta etorkizuna, gure estilo propioan, jarreran, mezuan eta apustuan bildurik.

Euskaldunak gara, hemengoak. Unibertsitate hau da gurea eta guztiontzakoa. "Eman ta zabal zazu" gure lema egia bihurtzeko nortasuna. Sustraiak ongi zainduz, baina munduaren ikuspegi zabal eta orokorra jomuga harturik.

Unibertsitate serioa eta hurbilekoa gara; eta konpromisoa dugu, inplikazioa, kontzientzia, ardura eta gaitasuna. Hizkuntza propio batean mintzo gara, kultura propioetik, ikuspegi propioetik. Gure sustraietatik fruituetara, erein, eman eta zabaltzeko espirituak betetzen gaitu.

Espiritu ekintzailea, inkonformismoa eta beti urrunago iristeko irrika ditugu akuilu.

NORTASUNA



Gure izaera
Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

**UPV/EHUⁿ, bultzada
da gure ahalmen guztia
garatzeko indarra
ematen diguna:
hazteko pizgarria.**

Ikerketa sustatzen du, ekimen berritzaileen sorrera suspertzen du, motibatu egiten gaitu, lankidetzara sakontzen du, sormena aberasten du, bikaintasuna lortzeko gure saiamena sendotzen du, gure helburuak lortzeko ezinbesteko jarrera tinko eta erabakia taxutzen du.

BULTZADA



Gure izaera

Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

Bikaintasuna xede duen proiektu partekatu bat sortzeko ardura dugu, eta ardura horrek behartzen gaitu gizartearekiko, ikasleekiko, sare sozio-ekonomikoarekiko konpromisoa hartzera, horien premiei seriotasunez, saiamenez eta egoki erantzuteari begira.

Horrek behartzen gaitu pluraltasunari erantzutera, malgutasunez jardutera, irakaskuntza-eredu propio bat sortzera, euskal lurralde guztian presente egotera eta herrigintzan eragile aktibo gisa parte hartzera. UPV/EHU, konpromisoa da jarduteko eragilea eta izateko arrazoia.

KONPROMISOA



Gure izaera

Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

Unibertsetateko mikrokosmosaren baitako bizitzak ezin argiago islatzen du gure dibertsitatea, jakintza sortzeko lana, aniztasuna. Bizitasuna adierazten du gure jarrerak, energia, indarra, esperientzia eta gaztetasuna, begirada berriak, etengabeko bilakaera, ikuspegi irekia... sormena.

Eta bizitasun horri esker da UPV/EHU bakarra eta europarra, lokala nahiz globala, berritzailea, punta-puntakoa, etorkizunerako aukera.

BIZITASUNA



Gure izaera
Funtsa, nortasuna eta markaren balioak

**Kide sentitzea,
gogobetetasuna, ohorea,
duintasuna. UPV/EHU
izateak esan nahi du
entzutea, gozatzea, ikastea
eta ikasitakoa irakasteko
lan egitea, eredia zabaltzea.**


UPV/EHU izatearen harrotasunak pertsona eta gizarte gisa haztera garamatza, proiektu partekatu baten parte sentiarazten gaitu. Harrotasun-sentimen hori etorkizunerako bermea da, gainera, Unibertsitatearen hazkunderan modu aktiboan parte hartzera bultzatzen gaituelako.

HARROTASUNA








01. IZANETIK IRUDIRA

- 01.1 SORKUNTZA-KONTZEPTUA:
UPV/EHU estiloaren sustraiak
- 01.2 UPV/EHU TIPOGRAFIA
KORPORATIBOA:
Gure testuen ahotsa



01.1 SORKUNTZA KONTZEPTUA:

UPV/EHU
estilo grafikoaren
sustraiak




Izanetik irudira

01.1. SORKUNTZA-KONTZEPTUA: UPV/EHU estilo grafikoaren sustraiak

ESPAZIOA

Espazioa da mezua
adierazteko gure eraren
muina: gure mezuaren
objektuak erakusten
ditu, eta ordenatzen
eta zehazten ditu
proportzioak, neurriak,
erritmoa, eskala...







“Ez naiz ari formaz kanpoko espazio horretaz, bolumena inguratzen duenaz, formak bizi diren az, ari naiz formek sortzen duten espazioaz, formetan bizi denaz, zenbat eta ezkutuagoan jardun orduan eta aktiboagoa den horretaz”.

EDUARDO CHILLIDA

ESPAZIOA EUSKARRI BIHURTZEN DA, EDUKIAREN, MAMIAREN, KONTAKIZUNAREN OINARRI.

Hala, "espazioa zizelkatuz", Chillidak zioen moduan, forma batzuk taxutzen dira, hitzak balioa hartzeko behar diren espazioak sor ditzaten. Gure sisteman, honela interpretatzen dugu kontzeptu hori: mezua zizelkatzeko oinarria, informazioa kokatzeko espazioa.

Espazio hori sortzeko oinarria forma geometriko soilak dira, aurrez planifikatutako eran modelatuak, aukera eman dezaten elementuak modu berezi eta bereizgarrian kokatzeko. **Forma horiei "espazio-kutzak" deritzegu, eta, horiei esker, Unibertsitatearen irudi grafiko bateratua adierazten dugu komunikazio-euskarri nagusietan.**



ESPAZIOA

Planifikatutako eran
modelatutako forma
geometriko soilen bidez
irudikatzen dugu.

UPV/EHUren identitatea aise ezagutzeko modukoa eta bereizgarria da, eta marka komunikatzeko hari gisa dihardu. Markaren funtsa eta balioak transmititzen ditu bere irudiaren bidez:

NORTASUNA ETA KONPROMISOA

Espazioaren kontzeptutik abiatuta sorturiko formek konpromisoaren eta profesionaltasunaren ideia transmititzen dute. Estilo propioaren, hemengo artearen eta kulturaren isla dira. Ordena, oreka eta errespetua iradokitzen dute. Sistema sinplea da, baina ordenatua, eta koherentzia du; horrek gure buruarekin leial jokatzeko laguntzen digu, ideiak argi izanik eta norabide konstanteari eutsiz.

BULTZADA ETA BIZITASUNA


Mugimendua, sormena, sortzeko askatasuna. Askotariko ideiak, munduak, ahotsak aintzat hartzen dituen sistema bat... baina norberarena galdu gabe, horrek uztartzen baititu gainerako guztiak bere baitan. Espazio-kutxen sistema honek bidea ematen du nortasunari eusteko, nortasuna garatzeko eta bizitzeko. Eta horrexegatik, suspertu egiten du, energia transmititzen du eta benetan nolakoak garen kontatzen du.

HARROTASUNA ETA HAZKUNDEA

Estilo propioa duen marka bat, agerian uzten duena zer eta nor garen; hazten jarrartzeko, fruituak biltzeko eta etorkizuna ereiteko oinarria. Sistema grafiko honen bidez, identitate koherente eta bereizgarria sortu dugu, markaren nortasuna zabaltzeko eta, horrekin batera, gure estiloari sendotasuna eta berezitasuna emateko.

01.2 EHU TIPOGRAFIA KORPORATIBOA:

Gure testuen
ahotsa



Izanetik irudira

01.2. EHU TIPOGRAFIA KORPORATIBOA: Gure testuen ahotsa

Ohartuki nahiz oharkabean, erakunde guztiak komunikatzen dira inguruarekin mezuen bidez. Eta mezu horiek, hartzaileak nola jasotzen eta ulertzen dituen, irudi jakin bat sortzen dute. Bistan da korporazioen mezuei buruzko iritziek eragin nabaria dutela hartzaileen portaeran. Bestalde, jakin arren entitate guztiak komunikatzen direla, ez dugu ahaztu behar komunikazio-ekintza betebeharra dela, erakunde publikoei zehazki dagokienez.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak bere gain hartzen du, bere erantzukizunaren oinarritzko printzipio gisa, komunikazio korporatiboaren kudeaketa, publiko guztiei entzuteko, haien premia, berezitasun eta asmoak identifikatzeko eta elkarrizketa sustatzeko.

Eta hori guztia beharrezkoa da, ez soilik egindakoaren kontuak emateko, baita gizarte baten bilakaera modu eraginkorrean gidatzeko ere.

Identitate korporatiboak eginkizun aktiboa betetzen du horretan. Haren araberakoa izango da zeinu grafikoen bidez adierazitako komunikazio bisualaren kalitatea, letraren araberakoa bereziki, idatzizko komunikaziorako bitarteko nagusia den heinean.

Letrak ahalmena du erakundearen balioak modu bisualean identifikatzeko, bereizteko eta transmititzeko, eta esaten den horretan esateko moduaren bidez eragiten du, hortaz.

Tipografia korporatiboa ikusten den hizkuntza da; erakunde baten mintzaira bisuala. Idazketa-moldeek tonua, doinua, tinbrea, erritmoa, izaera... dute, hitzek eta esaldiek bezalaxe.

Hona hemen EHU tipografiaren proiektua, gizartean hauteman, aurkeztu eta bereiz daitezen gure unibertsitateak transmititu nahi dituen identitate bereziaren printzipioetan oinarritua.

Unibertsitatearen eginkizunean sortzen diren premia guztietara egokitzeko xedez sorturiko tipografia bat da (barne-dokumentuak, webgunea, seinaleak, argitalpenak...), eta kontuan hartzen du UPV/EHUren izaera elebiduna ere; izan ere, karaktere tipografiko beraren bi bertsio ditu ("EHU Serif" eta "EHU Sans"). Tipografian, optimizatu egin dira ergonomiari loturiko irakurgarritasunaren oinarrizko alderdiak.

Azken batean, EHU letra-tipoak ezin hobeto islatzen du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak identitate jakin bat idatziz komunikatzeko eta bere irudi korporatiboa modu egokian taxutzeko duen interesa.

Iñaki Goirizelaia
UPV/EHUko errektorea

Izanetik irudira



01.2. EHU TIPOGRAFIA KORPORATIBOA: Gure testuen ahotsa

**EHU letra-tipoa Universidad del País Vasco/
Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa
estrategikoko programaren bidez finantzatutako
ikerketa-proiektuaren emaitza da —
UPV/EHU-PES 11/31—; ikerketa horren
helburua zen tipografia espezifiko bat
sortzea, Unibertsitatearen identitate bisual
korporatiboaren kudeaketaren parte izan dadin.**

Eduardo Chillida euskal artistak formari buruz gauzatutako espekulazio estetikoetatik abiatuta planteatu du ikerketa-taldeak UPV/EHUri letren trazuaren bidez identitate bisual korporatiboa emateko oinarri kontzeptuala .

Artistaren ekoizpen grafikoan, halako bat-etortze lauso bat ikusten da sorkuntza tipografikorako oinarrizko printzipioekin, forma dinamiko eta eraikuntza-formen planteamenduan, zorrotasun geometrikoari gailentzen baitzaizkio egituraren beraren muintetik abiatzen den nolabaiteko organikotasuna –cursus–, keinuaren jarduera modulatuak ematen duen bizitasuna –ductus–, betetasunaren eta hustasunaren arteko dialektika –forma/kontraforma–, bultzadak eta bat-batekotasunak –adorea–, edo hizkuntza plastiko bat bizi garen inguruneko kulturen berresteko asmoa –identitatea–.

Artea iradokizun modura harturik, EHUren letra-
tipoaren diseinua kontzeptualizatzeko, arteak
tipografiaren oinarriekin dituen loturak –hala nola,
espazioa eta egitura– bilatu eta aurkitu dira Eduardo
Chillidaren obran.



ABDEF

EHUSerif
Bold

GHIJKLM

NÑOPQRS

EHUSans
Bold

TUWXYZ

abcdefghi

EHUSerif
Regular

jklmñop

qrstuvwxyz

EHUSans
Regular

1234567890

EHUSerif
Italic

.,:;|!¿?%€@

EHUSans
Italic

\$£øμ*#% "{ }¥

ikus lezake tristez
dratu baten muge
z inguraturiko ka
Zer ikus lezake arc
muinoak eta eskif
tu ontziak gorriak
ke apika kristalez
re edo zilarrezkoz
dean. Suge erraldo
ikus lezake tristez
dratu baten muge
z inguraturiko ka
Ze muinoak eta so

Historia del Arte

giza nutrizioa eta dietetika

Zuzenbidea

Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza

Educación Infantil

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza

fisioterapia

creación & diseño

Conservación y Restauración de Bienes Culturales

farmacia

UPV/EHUren tipografia berri, pertsonal eta eksklusiboa sortuz, "zer garen, nolakoak garen" kontatzeko premiari erantzun nahi zaio.

EHU tipografiak aukera ematen digu gure mezuak modu argi eta zuzenean eta, batez ere, nortasun propioaz adierazteko, bereizten gaituen eta gure izaera, balio eta nortasunaren muinari erantzuten dion estilo tipografiko batez.

EHU tipografia...

...NORTASUNAREN adierazle da

Izateko era bat adierazten du; estilo, hizkuntza eta kultura bat; gure jatorria, gure historia, gure sustraiak eta gure etorkizuna. UPV/EHUK eta UPV/EHUrentzat sortua, barnetik mundura.

...BULTZADA da

Energia, motibazioa, apustu irmoa. Ilusioz beteriko proiektu bat, xede jakin bat lortzera bideratua: gure identitatea sendotzea.

...KONPROMISOA da

Apustu irmoa eta argia egiten dugu gure testuei ahots bakar eta propioa emateko, ideia komun hau abiapuntu hartuta: gure identitatea adierazten duten elementu guztiei balioa ematea, guztiak baitira UPV/EHU markaren osagarri.

...BIZITASUNA da

Mugimendua da bizitasuna hobekien islatzen duen ezaugarria. Eta UPV/EHU mugitu egiten da. Proiektu hau UPV/EHUren berrikuntza-ahalmenaren erakusgarri bat gehiago da: etorkizun hobe izatearren beti ereiten jarraitzeko asmo sendo eta iraunkorraren erakusgarria.

...HARROTASUNA da

EHU Type geu gara, Unibertsitatea da, jendea, proiektuak, gizarteari egiten zaion ekarpena. Gure espiritu nekaezin eta saiatuaren isla da. UPV/EHU da tipografia propioa sortu duen Espainiako lehen unibertsitatea, eta, harrotasuna ez ezik, eta etengabe hobetzeko ildo horretan aurrera egiteko adorea ematen digu horrek.

Izanetik irudira

01.2. EHU TIPOGRAFIA KORPORATIBOA: Gure testuen ahotsa

ESTILO TIPOGRAFIKOA

Izateko eta pentsatzeko gure era transmititzeko bitartekoetako bat da gure tipografia.

Gure sistema grafikoko gainerako elementuekin konbinatzen dugu (kolorea, irudien estiloa, espazio-kutzak), gure identitatearen berri emango duen irudi homogeen eta propioa sortzeko.

Mezua errazteko eta komunikazioa laguntzeko baliatzen dugu tipografia, eta modu ordenatu eta egituratuan erabiltzen dugu, mezu argi eta zuzenen bidez gure funtsa sendotzeko eta adierazteko.



EHU tipografia

EHU Type tipografiari buruzko dokumentazio osoa (tipografia eraikitze oinarriak, erabilera zuzenak eta okerrak, estiloak, etab.)
go.ehu.eus/ehutipografia-es




02. NOLAKOAK IZAN, HALAXE ADIERAZI.

DISEINU ETA APLIKAZIO GRAFIKOKO GIDA

- 02.1 SARRERA: UPV/EHU SISTEMA GRAFIKOA
- 02.2 SISTEMAREN ELEMENTU NAGUSIAK
- 02.3 LOGOTIPOA
- 02.4 ERAIKUNTZA-SARETA
- 02.5 TESTUA
- 02.6 KOLOREA
- 02.7 ARGAZKIAK
- 02.8 FORMATUAK
- 02.9 AHOTS-DOINUA



02.1 SARRERA: UPV/EHU SISTEMA GRAFIKOA



Sistema grafikoaren diseinuak markaren agintza eta izaera adierazten du: **hazten jarraitzeko nortasuna.**

Honako hiru elementu hauen konbinazioa du oinarri: irudia, tipografia eta espazio-kutzak.
“Espazio-kutzak” Chillidaren obran inspiratutako elementu geometrikoak dira, eta pieza bakoitzaren mezua kokatzeko gunea dira.

Jarraian, komunikazio-euskarri nagusietan erabiltzeko irizpide batzuk emango ditugu, UPV/EHU Marka Adierazteko Gida hau inplementatzen laguntzeko. Hain zuzen ere, markaren sistemaren funtsezko elementuen berri ematen dute, elementu horien erabilera egokia zehazten dute eta aplikazio nagusien adibideak ematen dituzte, hala nola, liburuxketarako, karteletarako, webguneetarako, publizitaterako eta merchandisingerako ereduak.

Sistemaren ardatzak dira marka-arkitektura, espazioak taxutzen duen elementu grafiko berria, tipografia, kolore-paleta, irudien estiloa eta ahots doinua. Alderdi horiek dira markaren adierazpena sortzeko eta UPV/EHU markaren irudi biziberritu, propio eta bereizgarria transmititzen laguntzeko.



Nork erabili edo aplikatza dezake sistema?

Sistema oso malgua da, eta sorkuntzarako eta berrikuntzarako tartea eskaintzen die hura aplikatzeko ardura duten profesionali. Oinarri argiak ditu, baina aplikazioan diseinatzailearen gustuaren arabera aldaerak txerta daitezke.

Sistema grafikoak bere bidea egingo du, eta bilakaera horrek zehaztuko du UPV/EHU markaren nortasun grafikoa. Garrantzizkoa da sistema grafikoaren oinarriak zuzen aplikatzea; hori dela-eta, diseinu grafikoko prestakuntza eta gaikuntza jaso duten pertsonak hartuko dute sistema aplikatzeko ardura.

Etorkizunera begira, tresna berriak sortuko dira, baita oinarritzko aplikaziorako eta komunikazio-euskarrien garapenerako gida bat ere, diseinuko teknikariak ez diren kideei begira.




Noiz erabili edo aplika dezaket sistema?

Unibertsitatearen ohiko komunikazio-euskarrietan aplikatzeko pentsatuta dago sistema, hala nola, liburuxketan, katalogoetan, posterretan... eta aplikazio osagarriak gehituko zaizkio, pixkanaka.

Unibertsitatearen jarduerari eta funtsari buruzko komunikazioen adierazpen grafikoetan sistema aplikatu beharko da. Sistema eraginkorragoa da orrialde bakarreko komunikazioetan edo lehen orrialdea euskarriaren azal modura ageri denetan, esaterako, publizitate inprimatuan, kartel edo posterretan eta orotariko neurrietako liburuxka edo katalogoetan.

Orrialde gehiagoko euskarrietan, bestalde, hobe da orrialde guztietan ez erabiltzea. Estiloa azaletan aplikatuko da, eta, barnealdean, haren xehetasun batzuk besterik ez dira erabiliko.



02.2 SISTEMAREN ELEMENTU NAGUSIAK



Gure sistema grafikoak 5 elementu ditu:

LOGOTIPOA

Gure marka-arkitekturak antolatzen du gure Unibertsitatea, definitzen ditu gure estamentuak eta komunikatzen du UPV/EHUK hartzaileei dagokienez duen zabaltasuna eta sakontasuna.

ERAIKUNTZA-SARETA: ESPAZIO-KUTXAK

Gure sistema grafikoko eraikuntza-saretak komunikazio-pieza bakoitzaren informazioa kokatzeko guneak eratzen ditu. Espazio-kutxek aukera ematen digute elementuak ordenatzeko eta nabarmentzeko: logotipoa, mezu nagusia, irudia, etab.

UPV/EHU TESTUAK ETA TIPOGRAFIA

Tipografia da identitatearen osagai nagusietakoa. Kerningak, lerroarteak, tipografia-familiak, informazioaren mailaketak, hizkuntzek eta testuaren konposizioak zehazten dute espazioaren forma.

KOLOREA


Gure sistemaren kolore-paletak aukera guztiak biltzen ditu: bere baitan biltzen ditu paisaian, gizartean eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean ikus daitezkeen kolore guztiak.

ARGAZKIA ETA ILUSTRAZIOA

Sistema honetan, argazkia da kontakizun nagusiaren elementua, testuarekin batera. Gure publikoarekin bat egiteko, behar bezala adierazi behar du komunikazioen mezua eta sostengua eman behar dio posizionamenduari.

UPV/EHU logotipoa

Logotiporako espazioa



Irudia, ertzeraino


Izenbururako
espazio-kutxa

A5 formatua

Izenburua

02.3 LOGOTIPOA

Logotipoaren
erabilera



Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera

Gure logotipoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateaz mintzo da. **Herri batez mintzo da, hango jendeaz, haren iraganaz, orainaz eta geroaz. Zutaz mintzo da. Har ezazu aintzat.**

Gure aktibo nagusietakoa da, erreferentziazko marka ezaguna gara, **Eduardo Chillida** euskal ekintzailetzaren, berrikuntzaren eta sorkuntzarako ahalmenaren eredu handienetako batek diseinatua.


Horregatik, ezinbestekoa dugu marka egoki erabiltzea. Eta batzuetan haren presentzia xehetasuna hutsala dela pentsatu arren, ez ahaztu merezi duen errespetuaz tratatu behar dugula.

Atal honetan, gako batzuk emango ditugu komunikazio-euskarriarako sortu den identitate bisual berriaren baitan UPV/EHUren logotipoa behar bezala erabiltzeko.

Identitate-arau horiek betez, ekarpen erabakigarria egingo duzu gure markaren nortasuna sendotzeko. Euskarria edozein dela ere, logotipok indar bera izango du beti, eta irudi sendo eta bateratua proiektatuko du. Horrela, gure ikuspegiaren eta balioen berme-zigilu bihurtuko dugu guztion artean.

Unibertsitatearen izena osorik idatzita duen bertsioak izango du lehentasuna, ez siglen bertsioak; siglak, hain zuzen ere, logotipoa eskuliburu honetan zehaztutako neurritik behera txikitu behar denerako utziko dira.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LOGOTIPO KORPORATIBOAREN BERTSIOAK ETA MURRIZKETAK

Izena osorik dakarren logotipoa erabiliko dugu, betiere, irakurgarritasuna kolokan ez badago. Oso kasu jakinetan erabiliko dugu, beraz, akronimoen bertsioa.

Murrizketei dagokienez, Nortasun Korporatiboaren Eskuliburuaren arabera, logotipoak **35 x 15 mm-ko gutxieneko neurria izan behar du, marka nagusian.** Eta **espazio txikietarako marka-aldaera** erabiltzekotan ere, **ezingo zaio eman 18,2 x 13,6 mm-tik beherako neurria.**

Logotipoaren segurtasun-tarteak **logotipoaren claimaren altuera (x) halako 5 izan behar du**, gutxienez, Nortasun Korporatiboaren Eskuliburuaren arabera. Espazio horretan inola ere ezingo da sartu bestelako elementurik, hala nola testua, irudia, kolorea, bestelako markak eta abar.

MARKA NAGUSIA




EUSKARRI INPRIMATUETARAKO LOGOTIPOAREN GUTXIENEO NEURRIA % 100 eskala



ESPAZIO TXIKIETARAKO MARKA-ALDAERA



SEGURTASUN TARTEA



Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera

Gure marka-arkitekturak gure logotipo korporatiboaren erabilera eta aplikazioak antolatzen ditu, gure estamentuak definitzen ditu eta Unibertsitatearen zabaltasuna eta sakontasuna modu koherentean komunikatzen dizkie haren hartzaile guztiei.

1) LOGOTIPO KORPORATIBOA, "NAZIOARTEKO BIKAINTRASUN CAMPUSA" IDAZKUNAREKIN, NAHIZ GABE

Logotipo korporatibo nagusia idazkunik gabeko "Nazioarteko Bikaintasun Campusa" izango da. (a)

Zenbait kasutan, idazkuna daraman "Nazioarteko Bikaintasun Campusa" logoaren bertsioa erabili ahal izango da. Gure logotipoaren alboan agertu behar du idazkun horrek, bereizketa lerro batek bereizita. (b)

Gainerako euskarrietan, librea izango da bertsioa aukeratzea, eta euskarri mota edo haren funtzioa hartuko da kontuan.

Idazkizunaren eraketa: Ihus 68. or.



(a)



(b)

2) LOGOTIPO KORPORATIBOA, UPV/EHU-KO BESTE EKIMEN BATZUEKIN BATERA

UPV/EHUren barne-azpimarkak

Azpimarkak logotipo korporatiboaren eskuinean jarriko dira beti, horizontalean, logotipo korporatibotik lerro bertikal batez bereizita.




Barne-azpimarkak: fakultateak, ikastegiak, etab.


Azpimarka bat (fakultate bat edo eskola bat, besteak beste) unibertsitatearen logotipoarekin batera ageri bada, hobe izango da testua bakarrik agertzea (a), eta imagotipoa eta forma alde batera utzita. Koadro berean ipiniko da, Unibertsitatearen logotipoaren eskuinean.

Azpimarkaren logotipoa sartu nahi izanez gero, Euskal Herriko Unibertsitatearen logotipoaren altuera berean jarri beharko da, (b) %100 beltzean adibidean ikus daitekeen moduan.

Idazkizunaren eraketa: *Ikus 68. or.*



Goiko aldean lerrokatuko da fakultatearen, eskolaren eta abarren izena.



Azpimarkaren logoa zentratu egingo da, unibertsitateko logoa altuerarekiko %100 beltza izanik.


Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera

Logotipo korporatiboa, Unibertsitateaz kanpoko beste marka batzuekin.


Unibertsitatearen logotipoarekin batera Unibertsitateaz kanpoko beste erakunde baten logotipoa ezarri behar izanez gero, haren ondoren jarriko da, eskuinean, hurrengo espazio-kutxan. Kasu berezi horietan, onartuta dago bi logotipo hurrenez hurren ezartzea goiko aldean.

Logotipo korporatiboa, Unibertsitateaz kanpoko beste marka batzuekin.



Azpimarken testuek ezin dute egon UPV/EHUren logotipoa baino gorago.

Logotipo korporatiboa, Unibertsitateaz kanpoko beste marka batzuekin. Logotipoa, Bikaintasun Campusaren idazkunarekin.



Espazio-kutxa nagusiaren (logotipoa) ondorengo kutxak inola ere ezin dira izan hura baino handiagoak.

3) LOGOTIPO KORPORATIBOA, BEHEKO HEGALEAN

Bi logotipo baino gehiago erabili behar diren kasuetan, espazio-kutxa berean sartuko dira guztiak, piezaren beheko aldean.

Unibertsitatearen logotipoa, Nazioarteko Bikaintasun Campusa idazkunik gabe



Unibertsitatearen logotipoa, Nazioarteko Bikaintasun Campusa idazkunarekin



UPV/EHU logotipoaren siglen bertsioa, neurria asko txikitu behar denerako.



Din A4 formatua



DIN A4 formatua

Barne azpimarkarekin batera agertzea



DIN A4 formatua

Kanpo markarekin batera agertzea

Nolakoak izan, halaxe adierazi


02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera

KOKALEKUA

Logotipoaren lehentasunezko kokalekua orriaren ezkerrekoa da, goiko aldean; lehenetsitako kokalekuari dagokionez, salbuespena izango dira goiko aldean bururako edo azaleko izenbururako tartea behar duten informazio-bitarteko bereziak. Logotipoak ezker-eskuin ordenatuko dira, betiere horizontalean (bi, gehienez ere).

SIGLADUN LOGOTIPOA

Unibertsitatearen logotipoak 35 mm-tik beherako zabalera izan behar badu, siglen bertsioa erabiliko dugu.



BIGARREN MAILAKO LOGOTIPO TIPOGRAFIKOAK ETA "BIKAINTRASUN CAMPUSA" IDAZKIZUNA

Unibertsitatearen logotipoaren eskuinaldean jarriko dira, eta ezin dute gelditu imago tipoko "Eman eta zabal zazu" esaldiaren gainetik.

DIN A5 formatua:

Idazkunaren tipografia: Helvetica Neue LT Std 55 Roman
Tamaina: 7 ptu. / Lerroartea: 7 ptu.
Bi hizkuntzen artean paragrafo jauzi bat utziko da.
Kolorea: Euskaraz: % 100 beltza
Gaztelania: % 70 beltza



DIN A4 formatua:

Idazkunaren tipografia: Helvetica Neue LT Std 55 Roman
Tamaina: 9 ptu. / Lerroartea: 9 ptu.
Bi hizkuntzen artean paragrafo jauzi bat utziko da.
Kolorea: Euskaraz: % 100 beltza
Gaztelania: % 70 beltza

DIN A3 eta DIN A2 formatuak:

Idazkunaren tipografia: Helvetica Neue LT Std 55 Roman
Tamaina: 11 ptu. / Lerroartea: 11 ptu.
Bi hizkuntzen artean paragrafo jauzi bat utziko da.
Kolorea: Euskaraz: % 100 beltza
Gaztelania: % 70 beltza

Logotipoa handiago inprimatu behar izanez gero, proportzioan handituko da, DIN eskalaren barruan.



Lerroaren lodiera: 0,5pt.

IZAERA BEREZIKO ARGITALPENAK

Izaera bereziko informazio-bitartekoetan, esaterako **Unibertsitateak argitaratutako aldizkarietan edo argitalpenetan**, logotipoa beheko aldean jarriko da, goiko aldean bururako edo azaleko izenbururako tartea utzi behar baita (1).

Hiru logotipo baino gehiago erabili behar diren kasuetan, espazio-kutxa berean sartuko dira guztiak (2).

Logotipoa 35 mm-tik beherakoa bada, siglen bertsioa erabiliko dugu (2).

BASQUE YOURSELF

The experience of a lifetime

The University of the Basque Country, Campus of International Excellence.

UPV EHU
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

(1)

UDAKO CAMPUS ZIENTIFIKOAK 2016
CAMPUS CIENTÍFICOS DE VERANO

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei zuzendua.

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea.
Ostautu: Miguel Unamuno Ikastetxe Nagusia. Uztailaren 3tik 30era.

Dirigido a estudiantes de 4º ESO y Bachillerato.

Lugar: Facultad de Ciencia y Tecnología.
Alojamiento: Colegio Mayor Miguel Unamuno.
Del 3 al 30 de Julio.

www.ehu.eus

UPV EHU
NAZIOARTEKO BIKANTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Administración Organizadora
Baldizkue
FECYT
Educar
Obra Social Fundación 'la Caixa'

BFA DFB
SLU
EUSKAL UNIBERTSITATEA
EUSKAL ERREKONOMIA UNIBERTSITATEA
EUSKAL ENPLAZAMEN
EUSKAL ENPLAZAMEN

AK Espazio Gida

(2)

Nolakoak izan, halaxe adierazi
02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera



**BIKAINTRASUN
CAMPUSAREN IDAZKUNIK
GABEKO LOGOTIPOAREN
NEURRIAK, INFORMAZIO
FORMATU ERTAINETAN**

DIN A5 formatua:
35,49x15,296 mm.

DIN A4 formatua:
44,982x19,387 mm.

DIN A3 eta DIN A2 formatuak:
52,899x22,795 mm.

Logotipoa handiago inprimatu behar izanez gero, proportzioan handituko da, DIN eskalaren barruan.



**BIKAINTRASUN
CAMPUSAREN IDAZKUNA
DUEN LOGOTIPOAREN
NEURRIAK, INFORMAZIO
FORMATU ERTAINETAN**



DIN A5 formatua:
61x16,22 mm.

DIN A4 formatua:
77,39x21,454 mm.

DIN A3 eta DIN A2 formatuak:
91,821x25,435 mm.

Logotipoa handiago inprimatu behar izanez gero, proportzioan handituko da, DIN eskalaren barruan.

Idazkizunaren eraketa: Ikus 68. or.



Atal honetan, arau orokor batzuk bildu ditugu, gure marka Unibertsitatearen azpimarkekin edo kanpoko markekin (laguntzaile edo babesleenak) batera agertu behar duen kasuetarako.

Kasu guztietan, UPV/EHU marka ezkerrean jarri behar da, goiko aldean. Gainerako markak, berriz, haren eskuinaldean jartzen dira, horizontalean, inola ere gainditu gabe Unibertsitatearen logotipoaren neurria, ez zabaleran ez altueran (1).


Marka guztiak zuri-beltzeko bertsioan emango dira (1) (2).

Nazioarteko Bikaintasun Campusa idazkuna duen Unibertsitatearen logotipoaren bloketik kanpoko logotipoen blokeratarteak gure markak duen zabaleraren erdia hartuko du (2).


Bi logotipo baino gehiago erabili behar izanez gero, beheko aldean jarriko dira, goiko aldean izenburuak, azpi-izenburuak, irudiak edo informazio osagarria jartzeko utzi behar izanez gero (2).

Euskarriak hala behartuta, logotiporako zehaztutako gutxieneko neurritik beherako logotipoa erabili behar izanez gero, sigladun bertsioa erabiliko dugu (2).

Beste logotipoek ezin dute izan Unibertsitatearen logotipoa baino altuera handiagoa.



1)




2)

Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.3. LOGOTIPOA. Logotipoaren erabilera

Komunikazio-euskarriaren zabalera oso estua bada eta bi logotipotik gora jarri behar badira, aukera dago Unibertsitatearen logotipoa piezaren goiko aldean jartzeko (Nazioarteko Bikaintasun Campusa idazkuna izan nahiz ez), eta beheko espazioa gainerako logotipoetarako gordetzeko (antolatzaile, laguntzaile edo babesleak).



Ikastegi edo fakultate batek Unibertsitateko logotipoarekin batera bere logotipoa erabili nahi duen kasu berezietarako, edo bere komunikazioetan kalitate-zigilurik edo delako ikastegi edo fakultatearen bestelako bereizgarri propiorik erantsi nahi izanez gero, honela kokatuko dira:

Orrialde bakarreko dokumentuetan:



Logotipoek ezin dute gainditu Unibertsitatearen logotipoak utzitako tartea

Kartela

Azala eta atzeko azala duten dokumentuetan:





Logotipoek ezin dute gainditu Unibertsitatearen logotipoak utzitako tartea

Liburuxka tankerako dokumentua

Nolakoak izan, halaxe adierazi
02.4. ERAIKUNTZA-SARETA. Espazio-kutxa

02.4 ERAIKUNTZA- SARETA

Espazio-kutxa



Gure sistema grafikoa definitzeko oinarria sareta bat da, zeinaren baitan eraikitzen baitira informazioaren arkitektura egituratuko duten espazioak. **Ezaugarri nagusia da logotipoen eta segurtasun-ertzen espazio-kutxei dagokienez izan ezik, erabateko askatasuna dagoela espazio-kutxa horiek nahierara sortzeko: ez dago espazio-kutxen proportzioa zehazten duen araurik, gomendio batzuk badiren arren. Kutxa horien eginkizuna da elementuak modu ordenatuan antolatzea.**

Nabarmendu nahi den informazioa bakartzea da helburua, hondotik aske gelditzeko eta aise bereizteko moduan eratutako kode bisual batean ordenatuta.

Horrela, joko bisual eta kontzeptualak sortzen dira, eta informazioa hondoarekin batera agertzen da, baina ez harekin nahasian, bataren eta bestearen espazioak eta kontzeptua errespetatuz eta estilo propio, xume, eskalagarri eta bereizgarria sortuz.


Oinarritik eratzen dugun espazioak forma bizi eta dinamikoak hartzen ditu, bere baitan hartuko duen elementu edo testuaren arabera.

Mezuak ez barreiatzearren, informazioa kokatzeko espazio bakar bat sortzea komeni da.

Informaziorako espazioak marrazteko oinarria sareta izango da, eta erabateko askatasunez diseinatuko ditugu.

Horrela, forma jakin batzuk eraikitzen dira, hitzak balioa har dezan behar diren hutsuneak sor ditzaten. Forma horiek mezua bere baitan hartzen eta nabarmentzen dute (logotipoak, izenburuak, nabarmenduak, testuak, etab.), **eta hondotik bakartzen dute, komunikatzeko, artifizio orotatik libre.**

Sistemak lagunduko digu, halaber, logotipoa babesten eta beti toki berean ezartzen, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituela betiere (kolorea, neurria, etab.).



Markarako
espazio-kutxa

Informazioa kokatzeko
espazio-kutxa

DIN A4 Formatua

DIN A5/A4 ERAIKUNTZA-SARETAREN NEURRIAK

3,621x3,621 mm-ko oinarri laukia, DIN formatu guztietan.

ESPAZIOEN KOKALEKUAK, AZALETAN, KARTELETAN ETA IRAGARKIETAN

Ezkerreko goiko aldeko 10,863 mm-ko ertzetik aurrera jartzen dira, DIN A5 eta A4 formatuetan. Zehaztapen hori logotipoak dituzten espazioei soilik dagokie, lehen aipatutako kasu berezietan izan ezik. Logotipoaz eta segurtasun-tarteaz azpitiko gainerako espazioa testuak ezartzeko espazio-kutxetarako uzten da.

LOGOTIPOEN ESPAZIO-KUTXEN NEURRIAK

Unibertsitatearen logotiporako eta azpimarketarako espazio-kutxen altuera eta zabalera aldatu egiten da, formatua DIN A5 eta DIN A4 den. DIN A5 formatuan, 28,968 mm-ko altuera finkoa du, eta 72,575 mm-ko gehieneko zabalera. DIN A4 formatuan, berriz, 36,21 mm-ko altuera finkoa izango du, eta 92,956 mm-ko gehieneko zabalera.


LOGOTIPOEN ESPAZIO-KUTXEN ARTEKO TARTEA

Logotipoaren proportzioen araberako espazio bat finkatuko da. DIN A5 formatuan, espazio-kutxen artean 4,41 mm-ko distantzia utzi behar da. DIN

A4 formatuan, berriz, 5,54 mm-koa. Distantzia hori bat dator, hain zuzen ere, marka nagusian Unibertsitatearen hizkuntza bateko eta besteko izenak bereizten dituen tartearekin edo markaren neurri txikietarako aldaeran Unibertsitatearen siglen artean dagoenarekin.

ERRITMOA, KONPLEXUTASUNA

Ahal den neurrian, forma oso konplexuak saihestu behar dira: forma zenbat eta soilagoa izan, orduan eta eraginkorragoa izango da, betiere oreka egoki eta erakargarria bilatuta.



Nolakoak izan, halaxe adierazi
02.4. ERAIKUNTZA-SARETA. Espazio-kutxa

**ERAIKUNTZA-SARETA,
LOGOTIPOAK EUSKARRIAREN
BEHEKO ALDEAN KOKATZEN
DIRENEAN (DIN A5/A4)**

Kasu batzuetan, logotipoa ezinbestean jarri behar izaten da beheko aldean, adibidez, aldizkarien buruak, publizitate-kanpainak edo bestelako tratamendu ezohikoak direla-eta.

Kasu horietan, sareta bera erabiliko da, baina elementuen kokalekuaren ordena alderantzikatu, gainerako parametroei bere horretan eutsiz.

Pertzepzio-arazoak direla-eta, espazio-kutxan, logotipoaren altuera baino ez da alderantzikatu behar.




NOLA SORTU ESPASIO-KUTXEN FORMA


Informazio-edukia bi atal hauek osatua da:
korporatiboa, edo markarena, eta informazioarena.

Informazioaren atalaren espazio-kutxari dagokionez, imajina litekeen edozein forma izan dezake, baldin eta aintzat hartzen badu honako ideia hau: informazio bat kokatzeko eta nabarmentzeko espazioak eta masak dira. Espazio-kutxa horiek sortzeko, kontuan hartu behar dira testuaren luzera eta tamaina, baita haren inguruan aplikatzen diren tarte irregularrak ere.

MARKAREN ATALA



INFORMAZIOAREN ATALA



Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.4. ERAIKUNTZA-SARETA. Espazio-kutxa

Espazio-kutxaren forma testuak berak eta haren inguruan uzten ditugun tarte zuriek zehaztuko dute.

Kutzak ez du zertan irudikatu zehatz-mehatz testuaren silueta: kutxaren funtzioa da oinarri bat sortzea, testua kokatzeko modu ordenatuan, orekatuan eta tarte egokiek inguratuta. Hain zuzen ere, testuaren inguruan sortzen ditugun espazio zuri irregularrak aberastu egiten dute haren forma, eta ezaugarri horrek izaera plastiko bakar eta bereizgarria ematen diete gure espazio-kutxei, beste kutxa estatikoago edo erregularrago batzuen aldean.

Garrantzizko ezaugarria da, bestalde, testuak ataletan biltzea eta sarri egitea lerro-jauziak, erritmo biziagoko espazioak sortzen laguntzen baitu.

Nahierako espazioak sor daitezke, betiere elementuak modu ordenatuan antolatuzko oinarritzko irizpide batzuk erreferentzia hartuta eta edukiaren informazio-hierarkiak kontuan hartuta. Izenburuak, bigarren mailako izenburuak edo bigarren mailako datuak ematen dira, izan ere, hizkuntza batean, bitan edo hirutan.

Diseinatzaileak erabakiko du hizkuntzak espazio-kutxen blokeen bidez bereizi edo ez: testuaren luzera edo tamaina, testua kokatzeko aukerak eta konposizio orokorra aintzat hartuta hartuko da erabaki hori. Alderdi horietan, nolabaiteko askatasunez joka daiteke; hala ere, **hurrengo orrialdeetan gomendio batzuk bildu dira, tipografikoak eta bisualak.**




DIN A4 formatua

Funtsezkoa da forma plastikoak sortzea, soilak baina erritmodunak.

Saiatu testuarekiko doitu gabeko espazioak sortzen, testuaren inguruan tarte irregularra utzita. Espazio-kutxaren formaren marrazkiak ez du zertan testuarekin bat etorri eta harekin lerrokatuta egon behar.


Espazioa "mugitu" egiten da, eta gero eta "zarata" handiagoa hartzen du eskuinaldera, irakurtzeko noranzkoan. Horregatik, forma orekatzeko, testu "bertikalak" erabiliko ditugu, bizpahiru hitzez behin lerro-jauzia sartuta.




ESPAZIO-KUTXEN ERABILERA ZUZENAK ETA OKERRAK

Hona hemen espazio-kutxekin egin daitezkeen gauzen adibide batzuk; baita ezin egin daitezkeen gauzen adibide batzuk ere.

Erreferentzia horiek kontuan hartuta, gida honetan aditzera emandako printzipioak zorrotz betetzen dituzten adierazpen bisualak osa daitezke.




Multzoa plastikoagoa izango da, baldin eta espazio-kutxa bakar batean sartzen bada.



Tarte egokia eta irregularra utzi behar da testuaren inguruan: gutxienez, 3,621 mm, testuaren eta espazio-kutxaren artean.



Espazio-kutxa ez da margotu behar, ezta koloreko lerro batez marraztu ere.



Espazio-kutxa ez da zulatu behar, ezta hari bilbea jaitsi ere.

02.5 TESTUA

Nola idatzi mezua,
UPV/EHU sistema
grafikoan



Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.5. TESTUA. Nola idatzi mezua, UPV/EHU sistema grafikoan

UPV/EHU sistema grafikoak estilo jakin bat du atxikita. Idazteko moduak zehazten du gure estiloa. Horregatik, testua eta hura idazteko modua funtsezko alderdiak dira sistema grafikoetan, estilo bisual jakin bat taxutzen eta komunikazio zuzen eta koherentea ahalbidetzen duten heinean.

Konposizioaren informazio-iturri zuzenekoena testua denez, ongi zaindu behar dugu gure mezuak komunikatzeko era. EHU tipografia korporatiboa erabiliko dugu komunikazio-material guztietan, hurrengo orrialdeetan adierazten den moduan.



DIN A4 formatua



DIN A3 formatua

GURE TIPOGRAFIA NAGUSIA

UPV/EHUko tipografoen taldeak diseinatutako EHU letra-tipoen familia da gure molde korporatiboa. Tipografia hori berriaz diseinatu dute UPV/EHU markaren adierazpide berri honetarako.

Bi bertsio ditu (Serif eta Sans). Bertsio bakoitzak hiru pisu ditu —Bold, Regular eta Serif—, diseinu-elementu bakoitza behar bezala prestatu ahal izateko.

ORDEZKO TIPOGRAFIA

Bitarteko digitaletarako, Arial tipografia erabil daiteke; bereziki, ordenagailuetan gure tipologia instalatuta ez duten hirugarrenek aplikazioaren bat ikusi eta partekatu behar badute.

Garrantzizko oharra: Ez erabili ordezeko tipografiarik aplikazio profesionaletan edo komunikazio-euskarri inprimatuetan.

A b c

EHUSerif (OPEN TYPE)

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnñopqrstuvwxyz
1234567890.,:;!¿?%€@£øµ*#%"}¥

A b c d

ARIAL

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnñopqrstuvwxyz
1234567890.,:;!¿?%&@£øµ*#%"}¥

A b c

EHUSans (OPEN TYPE)

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnñopqrstuvwxyz
1234567890.,:;!¿?%€@£øµ*#%"}¥

Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.5. TESTUA. Nola idatzi mezua, UPV/EHU sistema grafikoan

IZENBURUEN KONPOSIZIOA

Gure sisteman, estilo hauxe erabiltzen dugu: azaletako testuak lantzeko, informazio-pieza nagusiak eta testuen izenburuak, oro har, espazio-kutxaren barruan idazten dira, tarte zabal eta irregular batek inguratuta, ezkerrean lerrokatuta eta hitzak gidoiez moztu gabe.

Izenburua letra larriz idatziko da, eta laburra behar du izan, 7-8 hitz, gutxi gorabehera. 7-8 hitzetik gora dituenean, proportzioan txikituko da testuaren tamaina.

Baliteke izenburu batzuk lerro bakarrean sartzeko modua izatea, baina konposizioagatik eta diseinuagatik, hizkuntza bakoitzeko izenburua lerrotan zatituko da, bost lerrotan gehienez ere, bizpahiru hitzez behin lerro-jauzia sartuta, ahal izanez gero.



CURSOS DE LENGUAS PARA VISITANTES

Ez moztu hitzak gidoiez.

LANGUAGE COURSES FOR VISITORS
Cursos de lenguas para visitantes

Izenburua elebiduna bada, bigarren hizkuntzari lehenaren tratamendu bera eman behar zaio (alegia, letra larritan idatziko da), baina bertsio eta pisu (lodiera) batekin.

A UNIVERSITY OPEN TO THE WORLD

Lerro-jauzia, bizpahiru hitzez behin: ez osatu esaldi horizontalak, bertikalak baizik.

IZENBURU NAGUSIEN NEURRIA

Gehienez ere 7-8 hitz dituzten izenburuak erabiltzea gomendatzen da, barne direla gaztelaniazko artikulua eta preposizioak. Ez da komeni proportzio horretatik gorako izenbururik idaztea, lehia bisuala sortuko baita mezua ilustratzen duen baliabide bisualarekin.



SMALL LANGUAGE COURSES FOR FOREIGN STUDENTS CURSOS DE LENGUAS PARA ESTUDIANTES EXTRANJEROS

www.ehu.eus



A PHOTO EXHIBITION SHOWING THE HUMANITARIAN ACTION OF DOCTORS WITHOUT BORDERS UNA EXPOSICIÓN FOTOGRAFICA MUESTRA LA ACCIÓN HUMANITARIA DE MÉDICOS SIN FRONTERAS

www.ehu.eus

Nolakoak izan, halaxe adierazi

02.5. TESTUA. Nola idatzi mezua, UPV/EHU sistema grafikoan

**KUTXA ALTUA
ETA KUTXA BAXUA**

Kutxa altua erabiliko dugu izenburu nagusietarako, eta kutxa baxua, bigarren mailako edukia duten testuetarako (b).

**KERNINGA
ETA LERROARTEA**

Izenburuak eta bigarren mailako izenburuak osatzeko, kontuan hartu behar da kerninga.

Dokumentu elebarkarrei 0 kerninga aplikatuko zaie kutxa altuan EHUSerif letra idatzitako izenburu eta bigarren mailako izenburuei, eta -10 optikoa, eduki-testuei (ikus 93. orrialdea).

Dokumentu elebidunei edo hiru hizkuntzatan idatziei dagokienez, -25 kerning optikoa ezarriko zaie EHUSans

letra idatzitako izenburuei, bigarren hizkuntzan. Horrek emango dizkigu informazioa argi eta sendotasunez adierazteko gakoak (a) (b).

Dokumentu elebarkarretarako 93. orrialdean eta dokumentu elebidun edo hiru hizkuntzatan idatzietarako 95.orrialdean zehaztutako lerroarteak irakurgarritasuna errazten du (c).



**GRADUONDOKO
IKASKETAK
ESTUDIOS DE
POSTGRADO**

**Eduki espezifikoak eta
Nazioarteko Zabalkundea**
Contenidos específicos y
Proyección Internacional

www.ehu.eus

(a)

b)

**UDAKO CAMPUS
ZIENTIFIKOAK
2016 CAMPUS
CIENTÍFICOS
DE VERANO**

**DBHko 4. mailako
eta Batxilergoko
ikasleei zuzendua.**

Tokia: Zientzia eta
Teknologia Fakultatea.
Ostata: Miguel Unamuno
Ikastetxe Nagusia.
Uztailaren 3tik 30era.

**Dirigido a
estudiantes de 4º ESO
y Bachillerato.**

Lugar: Facultad de
Ciencia y Tecnología.
Alojamiento: Colegio Mayor
Miguel Unamuno.
